

Ekologismotik ere, Denon Bizitzak Erdigunean



SUKAR HORIA

Euskal Herri osoa "Denon Bizitzak Erdigunean" lelopean greba orokorra egitera dago deitua. Lelo horrek daukan indarra azpimarratu nahiko genuke oraingoan. Izan ere, bizitzaren beraren aldarrikapena da eta horregatik da hain beharrezkoa. Mugimendu feministak, grebara deitzeko, zaintza lanetan egin du indarra batez ere. Baina deialdiaren mamiak askoz haratago joateko indarra dauka. Gizakiona ez besterik, planeta-ko izaki bizidun guztien bizitzak erdigunean jartzeak gizartearen maila guztietan aldaketak emateko beharra dagoela ikustarazten du. Jada ez gara ari bakarrik gure ume edo aitona-amonez edo horiek zaintzen dituzten pertsonak pairatzen dituzten egoerez, baizik eta hori gertatzea baimendu duen egoeraz beraz.

Esan genezake zaintzaren krisia eta krisi klimatikoa sorrarazi dituzten faktoreak berberak direla. Gaur egun bizi garen gizarte kapitalista, kontsumista eta heteropatriarkal honek ekonomia, politika eta kultura ulertzeko modu

Gizarte kristauek
zapaltzen duten lurra
ikusten dute izerdi, odol
eta sufrimenduz landu
(bortxatu) beharreko
zeozer bezala

bat sortu du zeinak bizkarra ematen dion (eta guztiz ikusezin egiten duen) gizakiok gure artean eta naturarekiko dugun kodependentziari eta interdependentziari. Hori lurraren baliabide naturalen ustiaketan eta "behe mailakoak" kontsideratzen dituen bizitzen bortxaketan dago oinarrituta.

Gizakiak hasieratik izan du bere ingurunea ulertzeko beharra edo jakin-

mina, eta horrek historian ikerketa eta aurkikuntza iraultzaile askotara eramane gaituela esan genezake. Hala ere, gizarte guztiek ez dute planeta ulertzeko eta horrekin erlazionatzeko modu berdina izan. Yayo Herrerok pasa den urteko Ekotopaketen aurkezpenean esan zuen moduan, gizarte kristauek zapaltzen duten lurra ikusten dute izerdi, odol eta sufrimenduz landu (bortxatu) beharreko zeozer bezala, bertatik bizitarako beharrezkoak lortzeko helburuz. Berez perfektua zen paradisu-tik kanporatuak izateagatik betirako zigorra den eremua da haientzat. Badira beste gizarte batzuk, ordea, lurreko landare eta animaliak haien jainkoen oparigisa ulertzen dituztenak, eta esker onak emateko helburuz "oparitutako" bizitza horiek zaindu eta behar dutenetan errespetuz hartzen dituztenak. Hala ere, eta kolonialismoak (eta horrek leku askotan eragin zituen sarraskiek) horrela bultzatuta, lehenengoa da mundu mailan gailendu dena. ●



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupery

